


Haurbete Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

1996 Apirila-Ekaina - 5. Zenbakia





LIBURU KRITIKA

Izenburua: Maizter Misteriotsua

Idazlea: Joshep Sheridan Lefanu

Itzulpena: Luigi Anselmi

Kritika

“Maizter Misteriotsua” izu-nobela da, eta misterioa da bertan nabarmentzen dena, horregatik gustatzen zait niri hainbeste. Oso gustora irakurri dut. Irakurtzeko eta baita ulertzeko ere oso erraza baita. Gainera, nahiz eta ipuina itzulpena izan, oso euskara garbian eta aberatsean kontatuta dator.

Liburu honekin, misteriozko beste hainbat libururekin gertatzen den bezala, zaila da aspertzea, behin haria hartzen dugun unetik zaila egiten baitzaigu irakurketa bertan behera uztea.

Liburu honetatik gehien gustatu zaidana ongia eta gaizkiaz egiten den pertsonifikazioa izan da. Hauek gainera, fedea eta fedegabeziaren arteko etengabeko borrokaz inguratuta daude eta horregatik oso erakargarria suertatu zait istorioa.

Agian, esan beharra daukat, gaizkiaren erruz gertatzen diren ezbehar guztiak justifikagaitzak eta ulertezinak direla, baina azkenean giro nahasi hori bide onetik joatea ahalbidetzen dute.

Azpimarratzekoa da, era berean, istorioak osatzen duen hiztegi aberatsa. Hitz ezezagunak agertzen badira ere, hainbeste errepikatzen dira istorio osoan zehar, ezen azkenean testuinguruari atxikituz horiek ikastera ere iritsi naizen.

Dorleta Zapirain

GURE AUKERA : OIARTZUN

Askotan gure seme alabei aukera gehiago eman nahaian, nora jo edo zer egin ez dakigula ibiltzen gara. Gehienetan, urrutiko gauzak etxekoak baino hobeak direla iruditzen zaigu eta gure denbora libreka nola hornitu pentsatzen aritzen gara.

Eta uste dut ikastolako irakasleak ere, behin baino gehiagotan horrelako buru hausteeekin ibiltzen direla. Horregatik aprobetxatu nahi dut aldizkari honek eskaintzen didan aukera, Oiartzungo herriak dituen aukera desberdinak ikusarazteko. Beraz, gure gaia Oiartzun..... izango da.

1.- Oiartzun historiaurrean: mairubartzak, Kronlechak, eta Jentilbaratza. Koba eta mina zuloak. Harrespil, leize-zulo, trikuharriak eta hilarriak.

2.- Oiartzun eta natura: Biologia, natur zientziak, ekologia, ingurugiroa eta ornitologia.

3.- Oiartzun historian: kontaketak, esamesak, gertaerak, jaiak, inaguraketak, ipuinak, gertakizunak eta ohiturak.

4.- Oiartzungo eskulangintza eta langintzak: nekazaritza, erlazantza, ikaskintza, kontrabandoa, kuranderismoa, gastronomia, errotagintza eta arrantza.

5.- Oiartzun eta artea: arkeologia, zinea, dantza, eskulturgintza, argazkigintza, musika, pintura eta antzerkia.

6.- Oiartzun eta kultura: hitzaldiak, irizpideak, ikerketak, haurjolasak, tesiak eta turismoa.

7.- Oiartzun eta literatura: ipuinak, saia-kerak, nobelak, pentsakerak, olerkiak eta kontaketak.

8.- Oiartzun eta bertsolaritza: bertsoak, esaerak, ipuinak, jostaerak, olerkiak eta txantxak.

9.- Oiartzungo Elkarte eta ekitaldiak: kooperatibak, kulturalak, kirolak, politikak, hezgarriak, aisialdiak eta erlijioitsuak.



10.- Eta azkenik, Oiartzun bera: Sorospen, hazkunde industrial, politikoa, erlijio-soa, nekazari, sozial, kaletar eta abar.


Ikusten den bezala, oraindik Oiartzungo ezagueretan sakontzeko aukera badago eta gure ikasle gazteen artean jakin mina sortu nahi genuke.

Oiartzungo herrian "erromantiko" asko bizi dira eta hauek egin dituzten lanak eskertzekoak izan dira. Baina, oraindik gai asko daude aztertu gabeak eta jarraitzaile-rik ez da ikusten. Bada, bai, gazteren bat ikerketak egiten ari dena, baina gazte gehienak beste bideak jorratzen ari dira; gaur egun gizarte gaiak menderatzen ditu historia, arte eta kultur gaiak.

Bukatzeko aipatu nahi nuke, Oiartzungo ezaguerarako lehen pausoak emateko gidaririk onena "Oiartzun" urtekaria dela: 900 txosten eta 300 lankidetzek lortu dute "Oiartzun" aldizkaria ohikoa, Oiartzuarrentzat gertatzea.

EGARRIZ





DANIARRAK HAURTZARO IKASTOLAN.

1996.eko apirilaren 26an Dani-markako **ADALEN** herriko **Efterskolen** eskolako 38 ikasle eta 6 irakasle etorri zitzaizkigun aurten ere, laugarren aldiz, hain zuzen, bixitan. Ingelesa arloarekin loturiko proiektu osoaren barnean, eta Donostiara egiten duten ibilaldi orokorraren zati gisara, gure ikastolara hurbiltzen dira. Lehenengo aldiz etorri zirenean halako inpresio ona jaso zutela eta, urtero eskatzen dute (behin eta berriro hari guztiak lotzeko aurretik telefonoz deituz) gure ikasleekin harremanetan jartzea eta egun hau elkarrekin pasatzea.

Aurtengoa zehazki aldi berean era ximple eta osoan planteiatu diegu: goizeko hamaurretatik eguerdiko ordu bi t'erdia bitarte, elkarrekin komunikatzeko helburua izanik, egitarau hau prestatu eta bete dugu:

- Bi taldeak elkar orokorki agurtu ondoren, ikasle eta irakasleen aurkezpena.
- Ongi etorri gisara bi ikaslek Aurreskua dantzatu dute, beste batek txistua jo duen bitartean.
- Ikastolako ikasle taldeak guztien artean abesti herrikoia kantatu.
- Daniarrek ere euren danua hizkuntzan abesti bat abestu dute.
- Trikiti doinuak nagusitu dira ondoren. Bigarren pieza dantzatzuz, kanpora (leku zabalagora) irten gara. Bi ikaslek monitore lana eginez, Arin arin eta Fandangoaren dantzarako pausak aurkeztu dizkiete ondoren dan-

HAURTZARO INFORMATZEN



tzara gonbidatuz (bai bertakoak, bai daniarrak). Azkenik balsaren doinupean harreman eta elkarrizketa interpersonalerako bidea zabaldu da.

- Poliki ikasgela batera bildu gara eta han hamaiketakoa prestatu dugu (patata tortila eta sagardo pixkat). Ordu erdi edo gehiago jardun dute elkarrekin hitz egiten (ingelesaz noski). Nortzuk diren, zer den Oartzun, zer arazo dituen...
- Ondoren elkarrizketa hori ibiltari bilakatu da: herriko plaza nagusia, eliza, San Juan kapilla... bisitatu ditugu, zenbait kontakizun elkarri eskainiz. Kontsejupera joan gara: pilotaren jokoa nola den aurkeztu eta pilotan egitera gonbidatu ditugu bai neskak, bai mutilak. Zailtasuna frogatu dute: bi-bitako partidu txikia antzeztu dugu.
- Jada denbora aurrera doa eta ikasle guztiek askatasun osoan ordubi t'erdia arte taldetan herriko beste txokoak erakusteko aukera zabaldu dugu.

Esan, astelehenean ebaluatu egin dugula esperientzia guztia: zein garrantzitsua den MINTZAMENA, zein gutxi ezagutzen eta praktikatzun ditugun geure dantzak, horrelako laupa bost saio antolatu behar genituzke...

Poz batzuk ere jasotzen dira bizitzan: daniar irakasleek- beraien ikasleen ahotik ingelesez- Donostiako ikasleak baino hobe-

HAURTZARO INFORMATZEN

to mintzo garela eta harremanetan azkarra-
go sartzen garela esan digute. Gainera, ez
garela batere moztan beraiengana hurbil-
tzerakoan eta autonomia handiz jokatzeko
dugula (irakasleak zer egin esaten digun
arte zain egon gabe) jakinarazi digute.
Badakigu ez dagoela egindakoari begira
aurrera jo gabe egoterik, baina zerbait
behintzat aurrera goazela jakiteak ahalegi-
nean jarraitzeko indarrak eraberritzen ditu.
Eutsi, bada.



3. BBBEKO IKASLEEI AGURRA

Hamalau urte gure artean
hori ez da berriketa,
ERIK, BAKARTXO, IDURRE, ANE,
IMANOL, GAIZKA, DORLETA,
MAITANE, SILVIA, AINARA, MIKEL,
jarri mesedez arreta,
IGOR, MADDALEN, NEREA, DANIEL,
argitu zuen kopeta,

BELEN, MAITANE, OIER, IDURRE,
nahiz ikastolaz asea,
MARTA, IDOIA, IÑIGO, LAXIA,
hau da gure gogoeta,
AINGERU, ITZIAR eta XABIER,
azaldu hona tarteka
Ikastolako atea beti
zabalik duzue eta





HAURTZARO INFORMATZEN

IBILALDIAK

Ikasturte bukaeran egiten diren ibilaldi hauetan, beste hainbat gauzaz gain, elkar bizitzan, mailako harremanak sendotuz eta ongi pasatuz, kurtsoari amaiera atsegina ematen zaio.

Ikasturte bukaeran egiten diren ibilaldi hauetan, beste hainbat gauzaz gain, elkar bizitzan, mailako harremanak sendotuz eta ongi pasatuz, kurtsoari amaiera atsegina ematen zaio.

Normala den bezala, denok gaude gogo biziz egun horiek irits daitezen. Denok ikasturteari bukaera egokia emateko irrikatzen gaude.

Garesti samar ateratzen bada ere, inoiz ez da atzera egiteko arrazoia izaten. Talde batzuek kurtsoan zehar egingako ekintzetatik atera dute dirua: azoka, errifak saltzea...

Horrelako ibilaldi batean, hain gauza berezia izan arren, ez da arazo handiegirik sortu. Larrienetakoa, leku batzuetan eguzkia izaten da. Bestalde, 5 urtekotan, lehen ibilaldia denez, gurasoengandik aldentzeko arazoak dira garrantzitsuak.

Normala den bezala, denok gaude gogo biziz egun horiek irits daitezen. Denok ikasturteari bukaera egokia emateko irrikatzen gaude.

7.mailako talde batek

1. MAILA

Kaixo lagunak:

Gu 1.go mailako ikasleak gara eta kurtso bukaerako ibilaldia ekainaren 12,13 eta 14 an egin genuen. Lehenengo aldiz etxetik kanpo bi gau pasa genituen eta nahiz eta aurreko egunak urduru xamar egon, egunaren zain egon ginen.

Jakin nahiko duzue non izan ginen ez da? Ba, Beizaman izan ginen. Bertako baserri, erreka, mendiak... ezagutu genituen.

Horretaz gain, parranda egin eta oso ondo pasa genuen gure asmoa zen bezala.

Eta gauza gehiago jakin nahi baduzue gure ibilaldiari buruz, guregana etorri eta gustora kontatuko dizuegu dena.

Agur!

2. MAILA

Bigarren mailakoak Bernedon izan gara. Hiru egun pasa ditugu eta bi gau lo egin dugu etxetik kanpo. Ikasi dugu eta ondo pasa dugu. Pizsinara ere joan nahi genuen, baina itxiak zeuden. Hala ere, oso ondo pasa dugu gauza eta joku asko egiten. Ah! Gamusionak harrapatzen saiatu ginen, ez genituen harrapatu baina.

Ekainaren 12, 13 eta 14an izan gara Bernedon.

3. MAILA

Ibilaldia

Hirugarren mailakoek Bakaikura egin dute ikasturte bukaerako ibilaldia.

Ekainaren 18, 19 eta 20 an egon dira bertan eta mendi ibilaldiak, eguzkia hartu, paseoak egin eta frontoian pelotaz ibiliz oso ondo pasa dute.

HAURTZARO INFORMATZEN



4. MAILA

Hirugarren hiruhilabete honen haseran 4. mailakoek Bizkaiako Baratze baserri-eskolan egin dute hiru egunetako egonaldia.

Bertan tailer hauek eskaini dizkiete:

- Ikuilua. Hemen oilo, oilar, behi, untxi, zerri, ahuntz... zainketan aritu dira.
- Lorategia. Loragintzan bete beharreko arduren ikuspuntua jaso dute, beti ere praktikan oinarrituz.
- Erlagintza. Erleen munduarekin lehen topaketa egin dute.
- Baratza. Baratzgintzan aritu direnez, bertako eginkizun eta produktuak ezagutu dituzte.
- Transformakuntza tailerretan artile eta ogia egin dituzte.

Honez gain, jolastu, dantzatu, jan, zaldi gainean ibili,... egiteko aukera izan dute, bertan egun zoragarri batzuk pasaz.

Esperientzia honen azterketa egin ondoren merezi duen ekintza dela deritzogu.

5. MAILA

Aurten, 5. mailakoak ekainean Gasteiza goaz. Han, hiru egun pasako dugu, bertan dauden MUSEOAK (Arte Ederrak, Armak, Fourier, Zientziak...) eraikuntzak



(Ajuri-enea, Lege-Biltzarra, Alde Zaharra) eta zenbait EKINTZA (Gamarrako kiroldegia, zinema) bideratzeko asmoz.

Ibialdi honen helburuetariko bat, Gasteiz hiriburua ezagutzea dugu; bestea, mailakoen artean harremanak areagotzeko aukera berria eskaintzea.

6. MAILA

Aurtengo ikasturtean 6. mailako ikasle-irakasleen taldea "Arotz-enea" Ingurugiroaren Hezkuntza Zentrura goaz. "Arotz-enea" Zentrua Etxarri Larraun herriskin dago, Larraun bailara nafarran eta bere hiriburutik hurbil, Lekunberritik gertu.

Bertan, ekainaren 17, 18 eta 19a pasatzeko asmoa dugu.

Hiru egun hauetako 2 helburu ditugu: kurtsoari amaiera goxo bat eman eta Naturara modu atseginez hurbildu. Honengatik egun hauek oso programatuta ditugu eta jolasetatik aparte, tailer modura eta bi saioan Egagropilak eta Birziklapena landuko ditugu. Honetaz gain hirugarren ebaluaketan landu ditugun gaien osagarri modura Nekazaritza (baserria) bertatik ikusteko eta aztertzeko aukera izango dugu.

Ongi pasako dugula ez daukagu dudarik.

7. MAILAKOAK:

"GIPUZKOATIK NAFARROARA"

7. mailako ikasle eta irakasleak ekainaren 18, 19 eta 20an Nafarroan egongo gara. Ikasturte bukaerako ibilaldia, gutxi gora behera, honelakoa izango da:



HAURTZARO INFORMATZEN

LIZARRA izango da kokalekua, hain zuzen ere, bertako kanpina. Inguruko zenbait txoko ezagutzeko ez da aukerarik falta. Hara nola: Aralarreko Mikel Deunaren Monastegia, Iruñeako Planetarium-a, Eunate, Iratxe eta, noski, Lizarrako herria bera. Ezin da ahaztu kanpineko piszina.

Ederki pasa nahi dugu eta horretan ahalginduko gara!. Bueltan kontatuko dizuegu.

8.MAILAKOAK:

"EUSKAL HERRITIK KANPO, ZER IKUSI?"

Urtez- urte, kurtso honetako ibilaldia urteko proiektu izan da. Helburutzat, gertuko mugak igarota esperientzia berria bizitzea jarri dugu. Aurtengoak badu berezitasun bat gainera: azkenekoa izango da. Datorren ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza martxan egongo da eta antolatuko den ibilaldiak beste helburu bat izango du.

Aurten Comarruga (Tarragona) aldera goaz. Bertatik antolatu ditugun irteera desberdinak burutuko ditugu, besteak beste, Bartzelona hiria bisitatu eta bere Aquarium berria ezagutu, Port Aventura joango gara eta inguruko herrietako "acuapark" batean solasaldian ibiliko gara.

Ekintza hauek ekainaren 16tik 20ra arteko egunetan burutuko ditugu.

BBBko 1. MAILA:

"GELAKO HARREMANAK SENDOTZEN"

Maiatzaren 8. Egun hartan Langraitzera iritsi ginenean hura ikusteak lur jota utzi

gintuen. Herria, bakarti, txiki eta harriz josia zegoen horietakoa zen eta bertan gehiegi gelditu gabe, gure motxilak bizkarrean harturik albergera zuzendu ginen, zeinetan buelta pare pat eman ondoren, azkenean gela izugarri batean kokatu baikin.

Egun hartan, afaldu aurretik ez genuen gauza handirik egin baina gero, gela huts bat guretzat izango zela jakin genuenean musika aparatua hartu eta han egon ginen gaueko 12ak arte.

Hurrengo egunean, goizeko 10ak aldera herria bisitatzeko buelta bat eman genuen. Arratsaldean, berriz, albergean bertan, guk antolatutako jokuak egiten aritu ginen; oso ongi pasa genuen.

Iada asteazkena, eta joateko eguna. Goiza, euria ari zuenez, futbolearen eta ping-pongaren jolasten pasa genuen eta gero 5ak aldera edo, gela bildu, gauzak motxiletan sartu eta etxeruntz abiatu ginen berriro.

Leku hark eta eginiko ekintzek erabat bildu zuten gure gela, kide guztiak bat egin. Leku hark, zeinak misterioa zuen lekuko, hiru egun haiek gozarazi zizkigun. Etxe handi haren lorategi eder eta isiltasunaren dardararen ondorioz, hiru egun ahaztezin horiek pasa genituen eta BBB 1eko kideen harremanen juntagailu modukoa izan ziren.



HAURTZARO INFORMATZEN

BBBko 2.MAILA:

"Beste bailara bat ezagutzen: ARRA-TIA"

Bizkaian kokatua dagoen Artea izeneko herri txiki baina polit honetara joan ginen hiru egun pasatzera maiatzaren 8-9-10ean, "Alderdi Etxea" izeneko albergera hain zuzen ere.

Lehen eguneko goiz partean, Iparbuseko autobusean iritsi eta gero, herrirka ezagutu genuen. Arratsaldean, berriz, oinez joan ginen dozena erdi bat kilometrotara dagoen Zeanuriraino.

Bigarren eguna, osteguna, oso aurpegi itsusiarekin esnatu zitzaigun: euria, euria eta euria. Bazkalaurretik Elixabeitiako auzoan dagoen eliza harrigarria eta bertan kokatutako museo etnografikoa bisitatu genituen; arratsaldean, Zornotzara joan ginen.

Azken egunean, eguraldiak traza hobeagorik hartzen ez zuela ikusirik, bertan ibili ginen, herrian eta albergean. Gainera, lo faltaren eragina ere jadanik nabarmentzen hasia zen. Arratsaldean, etxera bueltatu ginen.

Zerbait aipatzekotan, bi izan dira egun hauetan gehien harritu gaituzten gauzak: batetik, zein etxe eder eta dotoreak ikusten diren herri horietan eta zein ondo zainduak dauden, eta bestetik, benetan bailara euskalduna dugula Arratiako hori: ia denak euskaraz mintzatzen ziren.

AZOKA

1go eta 2go maila

Martxoan 1. eta 2. mailakoek herriko azokan parte hartu genuen.

1. mailakoek azokan erakutsi genuen zein sukaldari onak garen eta gure janari goxoak dastatzeko aukera egon zen.

2. mailakoek berriz, eskuekin zein trebeak diren azaldu zuten beraien josteta eta kaja forratuekin. Opari bat baino gehiago egiteko aukera izan zen.



Nahiz eta egun ona ez izan, euria ari baitzen, denok oso ondo pasa genuen.

3. MAILA

3. mailakoek abenduaren 16 an azokan parte hartzeko aukera izan zuten.

Bertan ikasleen eskulanen erakusketa egin zuten eta gabonetako gozo gauzen degustazioa.

4. MAILA

Laugarren mailakoak urtarrilaren 20an izan dugu azokan parte hartzeko aukera ikasturte honetan.


Eskulan batzuen erakusketa egin genuen, eta gainera, gurasoek egindako postreak ere saldu genituen.

Iazko eta aurtengo azokan lortutako dirua, Baratzeko egonaldia ordaintzen laguntzeko oso baliagarria izan zaigunez, lehenik eta behin esker bero bat gurasoei bai azokan parte hartzeagatik bai egonaldiaren gozatzeko aukeran zuen seme-alabei laguntzeagatik.

5. MAILA

5. mailakoek, maiatzan, herriko azokan, kurtsoan zehar burututako maskaren erakusketa bideratu dugu. Bestalde, herriko azokan parte zuzena bizitu nahi genuenez, zenbait salmenta (egurrezko giltzariak, papezko pastarekin egindako pinsak, gozogintza) ere prestatu dugu eta honek guztiak suposatzen duen ikasketa (azokaren antolaketa, prestaketa, erantzunkizuna, adiskidetasuna.....) ahalbideratu nahi izan dugu.

Ekintza hau ebaluatu ondoren orokorrean balorazio positiboa izan da.



6.MAILA

Apirilaren 20an 6.mailako ikasleek parte hartu zuten Herriko Azokan. Bertan, hain boga-bogan dagoen gurutze puntuz eginiko lanak eta eskuz margotutako egurrezko kutxen, markoen... erakusketa eta salmenta bideratu zuten.

Bestalde, ikasle hauen gurasoen partaidetza ere azpimagarri izan da, eurak eginko erreposteria bertan baitzegoen.



7. MAILAKOAK HERRIKO AZOKAN.

Maiatzaren 4an ospatu zen azokan, 7.mailakoek parte hartu zuten. Helburua ez zen salmentarako gaiak eramatea, baizik eta ikastolan ikasturte honetan zehar egindako eskulanean erakusketa. Erakuske-

tarako ziren postuak modu atsegin eta bizian antolatu genituen. Hau da: gela bakoitzak bere ardurapean eskulan mota bat hartu eta bertan, talde desberdinak osaturik, ikusle guztien aurrean lanean aritu ziren. Batzuk, pilotagintzan; besteak zumitzarekin eta hirugarren taldea, pultserak egiten aritu zen. Jende pila inguratu zen lanean aritu ziren bitartean. Eguraldi bikainak lagundu zuenez, benetan arrakastatsua suertatu zen 7.mailakoen partaidetza azokan.



BBBKO 3. MAILAKOAK HERRIKO AZOKAN.

BBB 3ko ikasleok bi astetik behin azokara joaten ginen bidaiarako dirua lortzeko asmoz. Gure gela lau taldetan banatu zen eta talde bakoitzak, joatea tokatzen zitzaionean, bi pastel eta tortila bana eraman behar izaten zuen. Hurrengo aldian, produzitzea tokatzen zitzaionez, zerbait berezia (bonboiak, pastak, trufak...) eramaten ahalgindu behar zuen.

Bakoitzak produzitzen zuenetik at, gelakide batzuek eta irakasle batzuek parte hartu nahian bere aldetik produktu gehiago eramaten zituzten lortutako ehuneko baten truk.

Diruari dagokionez, lehenengo azokan izugarritzko dirutza irabazi genuen, baina ondorengoetan irabaziak gutxitu egin ziren, izan ere, jende gutxiago joaten baitzen.

HAURTZARO INFORMATZEN

ANDOAINGO "AITA LARRAMENDI" ETA OIARTZUNGO "HAURTZARO" IKASTOLE- TAKO 7.MAILAKOAK OIALEKUN

Aurtengo ikasturte hasieran, hizkuntza harremanetarako tresna bezala erabiliz, 7. mailako "Aita Larramendi"ko eta "Haurtzaro"ko gure ikasleek eskutitzen bidez elkar ezagutu dute. Ezagupen hori zabalagoa izan dadin, topaketa bat antolatu genuen eta maiatzaren 24a elkarrekin igaro genuen.

Egun ederra benetan eta horrelako topaketek helburu asko betetzeko balio izan dezatela. Eskerrik asko andoaindarrei gure nahia betetzen laguntzeagatik


"Hasieran, Kontxik, Euskarako irakasleak, eskutitzak idaztearen ideia azaldu zigunean, ez zitzaigun gustatu. Beranduago, eskutitzak idazten hasi ginen. Lehenik, guk idatzi genien. Eskutitzak idatziz, harreman onak lortu ditugu. Egun batean, gure ira-



kasleek, Andoaingo irakasleekin hitzegін zuten eta maiatzaren 24an (ostirala), "Oialeku" aldera joan ginen eguna pasatzera. Eguraldi ederra egin zuen. Hala ere, ez genuen pentsatu hainbeste ibiliko ginenik eta "Oialeku"ra iritsi ginenerako nahiko nekaturik bukatu genuen. Oso gustora gelditu ginen egindako ibilbidearekin. Gainera, elkar ezagutu genuen eta ez eskutitzekoak bakarrik, beste lagun batzuk ere ezagutu genituen. Andoaingo lagunak etorri ziren eta gu ere Andoaina joateko irrikitan gaude. Ea laister ikusten ditugun!!

Egun bikaina izan zen! "





7.MAILAKO TALDE BATEK.

XIV LEXOTI JAIALDIA ETA VII LEXOTI BERTSO-PAPER LEHIAKETA.

Lehengo hiruhilabeteko azken arratsaldean, hau da martxoaren 29an, LEXOTI jaialdia ospatu genuen ikastolan, XIV LEXOTI jaialdia hain zuzen ere. Ikastolako bertso eskolako gaztetxoek ihardun zuten bat-bateko kantuan eta ikus-entzule gisara 5.mailatik gorako ikasleak. Hemengo urduritasuna, horko ezina eta hango estuasuna. Baina, denak festa giroan oso alai. Aurtengo bertsolari taldea honako hau izan zen: 7.mailako Jon Lopez, Gorka Zinkunegi eta Aiur Rete-gi; 8.mailako Andoni Gaztaña-ga, Iker Irigoien eta Jon Zabaleku. BBBtik, Eneko Salaberria, Eneko Ezeiza, Jon Martin, Iker Goya eta Zuhaitz Lizarralde. Artalde honen gidari, 3.BBBko Igor Olague artzaina. Saio polita eskaini zigutena eta aurrera jarrai dezaten, hemendik gure animorik indartsuena.

Trikitilariak ere izan genituen festa honetan: 7. eta 8. mailako Leire eta Maider Lekuona ahizpak eta Maitane Larruskain. Txukun dantzatu zituzten behatzak soinujoleek eta ederki dantzatu zuen gorputza panderojoleak. Gure eskerrik beroena hauei ere.

Azkenik, VII LEXOTI bertso-paper lehiaketako bertsoak abestu zituzten hiru irabazleek. Lehengo saria, 8.mailako Aintzane Garmendiak eskuratu zuen, beraz txapela eta kopa.

Bertso polit hauek "Oiertzungo festak" zuten gaia. Bigarren saria, 7.mailako Juan Mari Otazok eskuratu zuen. Gaia: "Ilargiari maitasun eskutitza". Hirugarren saria, 8.mailako Oihana Mujikak eskuratu zuen eta bere gaia "Kontakatu irratia" izan zen. Hauek biak, kopa bana eskuratu zuten. Gure aldetik, ZORIONAK hirurei.

Honela, eman genion bukaera jaialdi bikain honi.



HAURTZARO INFORMATZEN

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA.

Bertsoekin jarraituz, "Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketa"z ihardungo dugu. Kanporaketak eskualdeka antolatu dira eta guri, Astigarragara joatea egokitu zitzaigun, apirilaren 26an. Bertso paperak idaztera 70 ikasle joan ziren. Hauek guztiak, 6.mailatik gorakoak.

Bat-bateko saiorako ere Haurtzaro Ikastolak izan zuen bere ordezkaritza. Txikien sailean, laukote hau: Aiur Retegi, Jon Lopez, Andoni Gaztañaga eta Iker Irigoien. Sail honekin bukatzeko, esan, Haurtzaroko taldea finalera pasa zela eta maiatzaren 24an Zarautzen abestu zutela. Txapela eskuratu ez bazuten ere, maila polita erakutsi zuten.



Handien mailan, berriz, iazko Euskal Herriko txapelduna, Jon Martin, pasa zen finalera eta txalo zaparrada handienaren saria eskuratu zuen.


Besterik gabe, hurrengo ikasturtean animo berdinez jarrai dezatela eta guztiei gure ZORIONIK beroenak.



ZUMALAKARREGI MUSEOA

Joan den maiatzaren 24an, 8. mailako ikasleak, Tomas Zumalakarregi jeneral karlistari dedikaturiko museoa ikustera joan ginen Ormaiztegiara. Jakin badakigu Euskal Herriak XIX.mendean zehar aldaketa ugari eta garrantzitsuak jaso zituela eta horien berri hobe ezagutzekotan Ormaiztegiarantz jo genuen. Irteera, espero bezala, oso positibotzat jo genuen, bertan XIX. mendeko panelak, agiriak, eskutitzak, jantzi eta arropak, uniformeak, dominak ... "in situ" ikusteko aukera izan baikenuen.

Eguerdi-aldean, Loiolako Santutegia ezagutzeko asmotan bertara joan ginen bazkaltzera. Ondoren, sabelak beteta genitue-larik, Zarautzera. Arratsalde honetan, Ikastolako lau bertsolariek Bertso Txapelketan parte hartu behar baitzuten eta gainontzeko mailakideak, beraiekin batera, gogoz animatzera hurbildu ginen.



BOSTGARREN MAILAKOEK IPARRALDERA EGINDAKO TXANGO

Martxoaren 22an 5.mailakoak, Euskal Herria gaia landu ondoren, bera ezagutzera abiatu ginen.

Txango honetan, Baiona (Alde zaharra, Eliza, Atturri eta Errobi ibaiak), Isturitz (Isturitz eta Otsozelaiko kobazuloak) eta Donibane Garazi (Alde zaharra) ezagutzeko parada izan genuen.

Primerako eguraldia aprobetxatuz egun ezinobea pasa genuen "Kaixoak" "Bonjour" ekin tartekatuz.

IKASTOLA EGUNA 1996-VI-2

Azken urteetako ohitura jarraituz, ikasurte honetan ere Haurtzaron antolatu eta ospatu dugu IKASTOLA EGUNA. Aurten egun honek gailurra jo duela esan behar. Toperaino gozatu zuen jendeak goiz-gozetik hasi eta pareta txoriak huntz tartean lotarako lekua aurkitzeko zalapartaka hasi ziren arte.

Festa herrikoiaren aldeko apostua ongi atera zitzaigula esan behar. Guraso, ikasle eta irakasleen parte hartzea bikaina izan zen. Oraindik ere bizirik jarraitzen dute euskaldunak lotzen, batzen eta elkartzen gaituzten hainbat proiektuk. Horietako bat, IKASTOLA, Euskal Herriko eskola.

Aurreko txandetan Arantxa Madariaga eta Izaskun Zubeldiarekin egin zen antzera, aurten, Ikastolan 25 urte JOXEK betetzen



HAURTZARO INFORMATZEN

zituenez, bere inguruan joan zen aurtengo Ikastola Eguneko ekitaldi ofiziala. Haurtzaro Ikastolako Bertsolariak, Dantzariak (Onintzak agurra eskaini zion aitari), Anjel Bergaretxe, Lehendakariaren esker oneko hitzak eta Ikastolaren oparia, loreak, guztiok eskaini genion kantua ... Denetik izan zuen Joxek, eta denak mereziak.

Joxek berak ere izan zuen zerbait esateko aukera. Sermoi polita egin zuen, oraindik ez dauka ahaztuta garai bateko ofizioa. Hitzak eta aholkuak alde batera utzita, herriaren aldeko lana ejenpluarekin erakusteko apostua egin zuela esan zuen. Eta lan hori egiteko lekua Ikastola izan zela azken 25 urte hauetan. Ikastolak zirela gure Herriaren etorkizuna eta bertan jarraitzeko asmoa zuela hemendik aurrera ere.

Goizeko 10,30 etan eman genion hasiera egunari. Ikastolaren mintzoa herriraino hel zedin, ibiladia egin genuen Plazan barrena, txalapartaren hots atabikoak lekuko eta Trikitiaren doinuaren erritmoa lagun. Ondoren, Jokoak, Tailerrak, Erakusketak ...



Eguerdian, lehen aipatutako Joxeren omenaldiko ekitaldi ofiziala. Bazkaria, Pailazoak, Musika ... Ez zen ezeren faltarik. Egun borobila izan zen.

Bereziki gurasoentzat pentsatua dagoen aldizkari honetaz baliatu nahi genuke, laguntzaile izan ditugun guraso zintzo eta leial guztiak eskertzeko. Benetan maitagarriak zarete, gure deiari erantzunez, egun honen antolaketan buru-belarri eta musutruk lanean saiatu zareteko. Mila eske. Proiektu batean sinisteko, norbera proiektuaren barruan sentitzea eta sartzea bezelakorik ez dago. Zorionak guztioi!

ZUZENDARITZA





SAN JUAN

San Juan eguna hemen duguela eta gure etxean ikusi eta nere aitari entzundago zenbait ohitura zahar idaztea ausartu naiz gure memoritk galdu baino lehen.

Gure aitak esaten duenez San Juan inguruan dauden ohitura asko Kristo aurretik soltizio inguruan egiten ziren festetik datozte; ala ere kristautasun kutsoa artuta iritxi dira gure gana: horrela elorri txuria lehen-goaren seinale eta kandela bedeinkatua kristautasunaren adierazgarri bezela.

San Juan bezperako jaiari San Juan Berde esaten zaio Oiartzunen. Ilunabarean baratzean elorri txuriz egindako gurutze bat jartzeko ohitura zegoen eta bere ondoan kandela bedeinkatua pizten zen sorginak landareak ez ondatzeko.

Hiruzkila (festetan jotzen ziren kanpaiak) entzutean sua pizten zen eta zenbait baserritan ur bedeinkatuaz hiru gurutze egiten ziren **s u a r e** gainean. Gero lasto sorta pisten zen su hortan eta honekin baratz eta zelaie-tan korrika ibiltzen ziren, bitartean honela abesten zuten:

San Juan, San Juan heldu da
sorgin begia galdu da
galdua bada galdu bedi
sekulan agertu ezpaledi.

Etxe batean neska politen bat bizi bazen mutilek lizar adarrak jartzen zituzten atean baino neska zakarra bazen altza adarrak jartzen zituzten.

Ekainaren 24 ean San Juan kapillako ate gainean dagoen imagina lorez apaindutako artoekin inguratzen zen Lehen zenbait auzoetan San Juan zuhaitza jartzen zen muturrean opariak zituela iristen zenarentzako baino beheko aldean "trantparekin" (seboa, galipota, alanbrea...)

Hau da guk dakigun pixarra, norbaitek gehigo jakin ezkeru pozik hartuko genuke bere laguntza.



JOXE OSTOLAZA



Joan den ekainaren 2an, aurtengo Ikastolaren eguna, Ikastolan 25 urtez irakasle eta konserje lanetan jardunduen Joxe Ostolazari, omenaldi goxoa eskaini zitzaion.

Eta urteurren hau aprobetxatuz, guk geuk ere Joxek lanean daramatzan hogeita bost urte hauei buruzko oroitzapenak, zenbait gogoeta eta errepasotxo bat emateko eskatu diogunean berehala animatu da, eta hortxe ibili zaigu, urte hauetan guztietan zehar bizia, ikusi eta ikasitakoaz kontu kontari.



1. Joxe, zu ez zara Oartzunen jaioa. Noiz etorri zinen Oartzuna?

Ni Zumaian jaio nintzen, duela 56 urte.

Urte honen bukaeran egingo ditut 30 urte Oartzuna etorri nintzela. Donostiako Apezgaitegi edo seminarioan ikasketak egin ondoren, Oartzuna apaiz bezala etorri nintzen.

2. Duela hogeita bost urte hasi zinen Ikastolan lanean. Irakasle modura? Zein adinetako ikasleekin? Nola gogoratzten duzu hasera hura?

Urte haietan Elizaren babesean "Patronatu Eskola" deritzon ikastetxe bat zegoen Oartzungo herrian. Nik aste barruan hemen klaseak ematen nituen eta aste bukaeran Parrokiako lanak egiten nituen. Horrela bost urtean egon nintzen, ikastetxea desagertu zen arte. Ondoren, duela hogeita bost urte, Haurtzaro Ikastolan hasi nintzen irakasle.

Ikasle zaharrenekin hasi nintzen, 3. eta 4. mailakoekin. Niretzat ez zen hasera izan, jarraipena baizik, aurrez bost urtetan irakasle lanetan aritu bainintzen.

3. Orduko erakusteko modua eta gaurkoa aldatu egin dela uste duzu?

Hogeita bost urte hauetan irakaskuntza asko aldatu da, era guztietan. Baina kontuan izan behar dugu nik eta nire adinekoek ezagutu dugula bost urtetik hamalau urte bitarteko neska-mutilak elkarrekin gela berean eta denentzat irakasle bakarra. Ikustekoa zen, ikasle zaharrenak gazteagokoei erakusten, irakaslea ahal zuen bezala moldatzen....Konparaketa bat egitearren, Ikastolaren hasierako urteak lehengoaren eta oraingoaren tartean edo erdian jarriko nuke. Nire ustez, orokorrean aldaketak onerako izan dira.

4. Irakasleak asko aldatu al dira 25 urte hauetan?

Ez dut uste urte hauetan irakasleak asko aldatu direnik. Orduan gauza onak eta arazoak baziren, orain ere bai; orain gehiago?



5. Urtean zehar asko aldatu al dira irakasle-gurasoekiko eta guraso-irakasleekiko harremana?

Irakasle-guraso arteko harremanak lehen ere izaten ziren. Beharbada orain gehiago.

6. Ikastolan ez zara beti irakaskuntzan aritu. Noiz utzi zenuen irakaskuntza konserje lanetan hasteko?

Ni ez naiz inoiz irakasle soila izan. Klaseak bukatzen nituenean "txapuza" lanetan hasten nintzen, gauzak konpontzen. Zenbat aldiz klaseak oso nekatuta bukatu ondoren gauzak konpontzen hasten nintzen eta lasaitu egiten nintzen, "relajatu". Urteetan zehar Haurtzaro Ikastola handitzen joan zen, ikasleak eta irakasleak ugaritzen, eta honekin batera behar berriak sortzen. Behar hauetariko bat atezain-konserje-arena izan zen, baina mantenimendu lanetan arituko zena. Atezain besterik gabe ez nuen hartuko lanpostua. Nire gogokoa txapuzak konpontzea zen. Bi gauzak lorturik zeudenez, biak hartu nituen. Hasera batean bi-hiru urtetarako. Hamargarren urtea igarotzen ari da eta ahal bada horrelaxe jarraitzeko asmoa dut.

7. Zein da hogeita bost urte hauetan profesionalki izan duzun satisfakziorik handiena?

Zalantzarik gabe nire satisfaziorik handiena gure eta beste ikastola guztiak nola indarra hartzen joan diren ikustea izan da. Ikastolak dira gure Euskal Herri zapaldu honetako benetako eskolak. Ikusi besterik ez dago: Euskal Herria gorrotatzen duenak, ikastolak ere gorrotatu egiten ditu, eta alderantziz. Niretzat ikastola, orokorrean, gauza serioa da, egin behar handiko erakundea. Nire bizitzan berari ematen diot nire dedikaziorik handiena. Eguneroko soldata berak ematen dit, baina soldata ez da nire helburua.

8. Urte hauetan hamaika liburu idazteko adina anekdota izango dituzu buruan. Konta ezazu baten bat.

Ez luzatzearren anekdota bakar bat kontatuko dut. Pertsona ezagun batek kalean entzun omen zuen, nik irakasle lana utzi eta konserje lana hartu behar nuela. Honen aurrean honela esan zidan: "Gehienek lanpostu berriak aldatzen dituztenean hobe den bat aukeratzen dute, behetik gora doaz, zu alderantziz goitik behera zoaz. Lehendabizi apaiza, gero irakasle eta orain konserje."

9. Ba al duzu oroimen txarren bat?

Bizitzan gauza on asko izaten dira, txarrak ere bai. Merezi al du "Kilometroak 92"ren eguraldiaz eta abarrez gogoratzea?

10. Beste 25 urte beteko al zenituzke?

Bai, pozik. Baina bizimodu honetan ez, ezin- go nuke horrela iraun. Erretiro goxo baten ametsa ere egiten dut...

11. Joxe, nola ikusten duzu udal-eskola publikoaren proiektua?

Gai honi buruz esan Haurtzaro Ikastolak eginiko informe edo artikuluekin oso ados nagoela.

12. Eta bukatzeko, zer sentitu zenuen omenaldia eskaini behar zizutela eta, jadanik lanean hogeita bost urte dar-matzazula oroitarazi zizutenean?

Esan beharra dago ustegabeen ez ninduela harrapatu. Nire aurretik Arantxa eta Izaskun omendu zituzten, eta banekien ondoren nire txanda izango zela. Nahiz eta aurrez jakin, hala ere, eguna gaineen dagoela ikusten ditzunean, nik behintzat, halakopoza eta "emozio" berezia somatzen dut. Esan beharra daukat ez naizela omenaldizale. Nahiago dut ixilik eta atzentziorik eman gabe igaro, baina ohitura batzuk hor daude, omenaldiena, adibidez, eta pozik onartu dut.

MIKEL ANTERO'I ELKARRIZKETA

Mikel Antero gure ikastolako ikaslea da, aurtengo ikasturtean BBBko 2.mailan dago. Aldizkari honetan agertzen dira bere marrazkiak: azalean agertzen den "personaia" eta atal desberdinetako logotipoak berak egin ditu. Berarekin aritu ginen solasaldian eta hona hemen bere hitzak.



1. Nola hasi zinen marrazkiak egiten? Zerk animatu zintuen?

Ba, txiki-txikitatik nire anaiak erakusten zidan eta, egia esan behar baldin badut, nire familia guztiak marrazten zuen. Hala ere, nik uste dut mundu guztia hasten den bezalaxe hasi nintzela ni, hau da, txikitandik.

2. Marrazkilari ontzat al daukazu zure burua?

Ba, EZ!, jende pila bat dago nik baino askoz ere hobeto marrazten duena, benetan, pila ederra!

3. Zure marrazkiak TXINPART aldizkarirako erabiltzen dira, bai azalean baita barnean dauden logotipoetan ere. Baina, beste lekuren batean agertzen al dira zuk egindako marrazkiak?

Beno, badaude Donostiako aldizkari batzuk eta horrelako publikazioak eta hauetara nik egindako marrazki batzuk bidali ditut, eta publikatu ere egin dituzte; baina, oraingoz, ez daude nire marrazkiak hainbeste lekutan. Hala ere, ordaintzen badidate, lasai! nik bidaliko ditut.

4. Beste inork eskatu al dizu marrazki berezirik egiteko? Egin al duzu? Zertarako?


Ba, bai, gelako lagunek, neskek eta horrelako jendeak, pila eskatzen didate eta serio gainera: "egin iezadazu horietako marrazkiren bat!!". Baina, beno, nik marrazkiak nire gustura eta gusturako egiten ditut, etxean egiten ditut eta baita "Mate"ko klasean ere.

5. Zein da, zuri pertsonalki, gehien atsegin zaizun marrazkilaria?

Nik baino gehiago marrazten duen edozein marrazkilari gustatzen zait: hau da, jende asko. Hala ere, izen bat esatekotan, agian Arthur Adams. Hau komikigile amerikarra da eta hau da gehien atsegin zaidana. Baina, hemen bertan ere, Oartzunen badago lagun mordo bat horretan aritzen dena. Ezagutzen al duzue Josu Mitxelena? Ba, erakusketa bat antolatu zuen; ikusi al zenuten? Ederra, benetan! Hala ere, ez daukat horrelako "faborito" berezirik, nik guztiei begiratzen diet.

6. Ikusi izan dituzun marrazkietatik, zein da gehien gustatu zaizuna? Zergatik?

Marrazkilari asko dago eta, noski, marrazki askoz ere gehiago. Gustatu? Ba pila bat, ezin duzu bat hartu eta esan marrazkilari hau edo



marrazki hau da orain arte ikusi dudana onena, hori ezin duzu esan. Ez dakit, badago, gaur egun, oso ongi marrazten duen jende asko eta zuk bere pausoak jarraitu nahi dituzu, baina "faboritorik" ez duzu inoiz.

7. Eta, zuk egindako marrazki guztietatik, zeinekin geldituko zinateke? Zein da arrakasta handiena lortu duena?

Ba, nik marrazkiak egiten ditudanean mahaian uzten ditut, gehienetan bukatzen ditut eta "kariño" guztiarekin gainera, baina, agian joaten naiz beste edozein gauza egitera eta itzultzen naizenean begiratzen ditut, lehenengo begi batekin eta ondoren bestearekin eta ia-ia beti bukatu eta gero ez zait batere gustatzen. Askotan bat egiten dut, ondoren bukatu eta segituan zakarrontzira botatzen dut. Hasera batean ez naiz gustora gelditzen egin dudana marrazkiarekin.

8. Zein da, marrazki eta komikia munduan, gehien gustatzen zaizun mota edo estiloa?

Ba, gustatu-gustatu edozein, denak! Ongi egiten badute eta ongi baldin badago. Komiki munduan, gidoia edo marrazkilaria ona bada atsegin zait edozein mota.

9. Zuk erakusketa edo lehiaketaren batean esku hartu al duzu? Non? Zer iruditzen zaizu honelako esperientziatan parte hartzea?

Erakusketatan ez dut parte hartu, baina lehiaketetan bai! Adibidez, Donibane-ko lehiaketan parte hartu dut eta oso ongi dago honelako ekintzetan esku hartzea; berez ez duzu ezertxo ere irabazten, agian sari kaskarraren bat, baina oso ongi dago jendea ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako eta zu bezala marrazten duen jendearekin elkartzeko. Honegatik, batez ere, dira interesgarriak ekintza hauek. Hau dute berezko "saria".

10. Zu, une honetan, BBBko Bigarren mailan zaude. Egiten ari zaren ikasketekin beste gauza batzuk egiteko denborarik gelditzen al zaizu? Noiz marrazten duzu?

Ba, beno, ikasteaz gain, ez dut ezer askorik ere egiten. Denbora gutxi daukat baina saiatzen naiz ahal den etekinik handiena lortzen. Ez dut egunoro marrazten, ez dut ordu finkorik, gainera musika talde batean gitarrajole eta abeslari aritzen naiz. Beraz, marrazteko erabiltzen dudana denbora klaseetatik aparte, hau da ikastolan, etxean egiten dut; baina ez naiz egoten arratsalde guztian jo eta ke hor marrazten.

11. Nolako ikaslea zara? Zer moduz zabil-tza ikasketetan?

Ba, ikasle txarra, egia esan behar baldin badut, txarra. Eta ikasketetan, ez nabil ongi, ez dut ia-ia ezer egiten; dena arrastaka eramaten dut, gero aprobaten dut baina oso justu.

12. Eta bukatzeko, galdera pertsonal bat, zer moduz moldatzen zara neskekin? Marrazkilaria izateak ezertan laguntzen al dizu?

Beno, gaizki ez naiz moldatzen baina ea elkarrizketa honekin arrakasta gehiago lortzen dudana eta neskak hasten zaizkidan niri deitzen. Eta marrazkilaria izateak soil-soilik paretak dekoratzeko laguntzen dit, besterik gabe!.

Beno Mikel, mila esker zure denbora guri eta TXINPART aldizkariari eskaintzeagatik. Beste bat arte, ondo izan! AGUR!!!!



Kaixo, bigarren mailako haurrak gara eta Lide Martiarena irakasleari elkarrizketa bat egin diogu. Zergatik? Oso marrazki politak egiten dituelako eta bere marrazkiekin ikastola apaindu duelako.

Guk galdera hauek egin dizkiogu:

1. Zenbat urterekin hasi zinen marrazten?

Paretean marrazten orain hasi naiz.

Marrazten denok hasten gara txiki txikitatik, denok dakigu marrazten.

Ni berandu hasi nintzen nire gelan marrazkilari onak zeudelako. Jokin Mitxeleña eta Iñaki Bergaretxe ziren nire gelako marrazkilaririk onenak.

Seminario garaian aspertua nengoenean paperean marrazten hasi nintzen eta ikastolan Maribiren arrimoan asko marraztu dut.

2. Txikitan pinturara joaten al zinen?

Ez, ez nintzen joaten.



3. Nola hasi zinen marrazkiak egiten?

Zuek egiten duzuen bezala. Zuek ere paperean egiten dituzue marrazkiak eta ni ere berdin hasi nintzen.

Dena ongi begiratzea eta buruan argi gordetzea oso inportantea da.

4. Asko ikasi behar al da marrazkiak egiteko?

Ez. Entrenatzeak asko laguntzen du. Batzuk errazago egiten dituzte gauzak eta beste batzuk entrenatu egin behar dute. Kiroletan ere horrela gertatzen da eta marrazkiak egiteko ere entrenatu egin behar da. Hasieran ez da erraza izaten baina eginez, eginez lortzen da.

5. Nola egiten dituzu marrazkiak?

Lehenengo pentsatu egiten dut zer egin nahi dudan edo norbaitek eskatzen badit marrazki bat egiteko, pentsatu egiten dut nola egin. Gero gutxi gora behera arkatza-rekin egiten dut eta ondoren ertzak ondo marraztu rotulagailuekin eta azkenik margotu.

Zuek ere lagundu zenidaten marrazki batzuk margotzen.

6. Zaila al da marraztea?

Ez da zaila.

Denok marraztu dezakegu, zuek ere marrazten duzue. Denak dakigu marrazten.

7. Neketsua al da marraztea?

Ez, gustora egiten duzuna ez da neketsua.

8. Gustatzen al zaizu marraztea?

Bai, asko, izugarri, pila bat.



9. Ze pintura mota erabiltzen duzu?

Paretan Hidralux erabili dugu. Uretako pintura da. Urarekin nahastu daiteke eta eskuetatik erraz kentzen da urarekin. Ez dugu aguarras eta horrelako gauzarik erabili behar. Urarekin garbitzen da.

10. Pintura asko behar al da?

Paretak margotzeko izugarri asko. Leku batzuetan paretak oso lehorra dago eta pintura asko txuputzen du.

11. Zikintzen al zara?

Bai, Marizikin bat naiz.

Arropa zaharrarekin margotu beharrean, jantzia daukadanakin margotzen hasten naiz eta zikindu egiten naiz. Ordularia ere zikintzen dut.

12. Etxean marrazten al duzu?

Bai. Ez nahi adina baina marrazten dut.

13. Zure etxeko paretetan marrazten al duzu?

Nire semearen gelan bi marrazki egin nituen eta orain bat berratu dugu. Orain beste marrazki bat egingo dugu. Berratu gabe utzi dugun marrazkia marraskilo bat da.

14. Zer marraztu duzu?

Pareta batean marraskiloa eta hau ipuin batetik aterea da, zuek gelan duzuen liburu batetik. Hau utzi egin dugu. Beste paretan dordoka eta tximeleta batzuk zeuden marraztuak.

Ah! Gabonetan Olentzero marrazten dugu.

15. Non marrazten duzu?

Paretetan, nire semearen logelako paretetan.

16. Brotxakin margotzen al duzu?

Bai, bai.

17. Ze arazo izan dituzu margotzerakoan?

Ikastolan arazo handiena izan zen alturera igo beharra, ni txikia bainaiz. Trapezistarena egiten ibili behar izan genuen eskailera eta mahaia erabiliz goraino iristeko.

18. Zerbait gaizki ateratzen bazaizu, zer egiten duzu?

Ba konpontzen saiatzen naiz.

Arkatzarekin egiten dudana ez bazait gustatzen berratu egiten dut.

Rotulagailuarekin gaizki ateratzen bazait gainetik pintura jartzen diot.

Pinturarekin gaizki ateratzen bazait tranpeatzen saiatzen naiz.

19. Pintura irakasten hasiko al zinateke?

Ez. Nik ez dakit pintura irakasten.

Mila esker Lide gure galderak erantzuteagatik.

Azken gauza bat esan nahi dizuet:

Inportanteena da denok dakigula marrazten, denok gara artistak eta entrenatuz gehiago ikasten dugu

ETAAAAAAAAAAAA

ondo begiratu dena.

Beste gauza bat :

Ikastolako paretak ez ziren margotuko denon laguntza ez banu izan: Eskolaurreko irakasleak, mailakideak, ziklokideak, Koro eta bere artista kuadrila eta 2. mailako haurrak.

INGURUGIROKO ASTEA GURE IKASTOLAN.**Gure OIARTZUN ibaia**

Munduko egungo gizarteek, Lurreko ipar hemisferioko aurreratutzat jotzen ditugun horiek, naturarekiko duten begirune eta aldaketak sortzeko eragina oso eztabaidagarria da. Esate baterako, gizarte aurreratu hauetan bideratutako baliabide naturalen eta hauetatik sorturiko produktuen kontsumo kontrolatugabeak errekurtsoen murrizketa (ura, airea, egurra, lurtzoria, basoak... ea) dakar.

Bestalde, azkeneko hamarkadetan gizarte aurreratu jakintsu hauetan giza-kiak eragindako kalteak konpondu edo konpentsatu asmoz zenbait mugimendu sortu dira; ekologismoa beraien buru delarik. Mugimendu honekin batera Ingurugiro Heziketa arloa urteen poderioz garrantzi eta behar nabarmena jasotzen ari da, biztanlegoarengana natur arazoak gerturatzeko bitartekaria bihurtu delarik.

Haurtzaro Ikastolak azkeneko ikastur-tetan mugimendu honekin bat eginez, Oiarzungo ikaslegoa egoera eta gaiarekiko sentsibilizatzeko programa interesgarriak garatu ditu. Aurtengo ikasturtean, GURE OIARTZUN IBAIA deituriko proiektua, zeinetan Ikastola osoak parte hartu duen (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, barne) interdisziplinarki landu dugu. Proiektua nagusiki bigarren ebaluazioan zehar garatu arren, iharduera-blokea martxoko aste batean laburbildu da (martxoaren 18tik 24 bitarte).

Alde batetik, proiektuaren garapena, eta bestalde, Ikastolako etapa, ziklo eta maila guztien koordinazioa, Haurtzaro Ikastolako Talde Pedagogikoak bere gain hartu ditu. Honela ikasturtea hasi zene-tik, programazio- eta prestaketa-faseak, burutze-fasea eta ebaluazio-faseak zuzendu ditu.

**IBAIALDE PROIEKTUA**

Azken hilabete hauetan zenbait argital-penetan aditzera eman bezala, aurtengo ikasturte bukaeran Haurtzaro Ikastolak CEIDAK (Eusko Jaurilaritzaren Ingurugiro Heziketarako Aholkulari Taldea) zuzenduriko programa interesgarri batean parte hartu du.

1992. urtetik egun arte, Europaren ipar-aldean sorturiko AZTERKOSTA proiektua aurrera eraman da, europar-mailako behaketa-sare baten barruan bideratuta (COAST-WATCVH). Pertsona horiek izan dira kostalde-zati bat (5 Km inguru) hartu eta duen egoera behatu, ingurugiro-arazoak bilatu eta irtenbide ezberdinak proposatzen saiatu direnak.

1996.ean sare hau gure lurreko ibaietara zabaldu nahi izan da, orokorrean, gure ingurugiroaren kontserbazioa eta hobekuntza, edota bereziki ibai-ekosistemen egoera ezagutzeko asmoz. Haurtzaro Ikastolak proiektu honen berri gabonetatik jakin bazekienez, zain egon eta momentua iritsi denean proiektu interesgarri honetan parte hartzeko gestioak egin eta lanean hasi da, aurreko beste artikuluetan adierazi den bezala, eguneroko behar berriei erantzun nahian. Esperientzia oso gustokoa izango delakoan, agur!



HIRU URTEKOAK OIARTZUN IBAIAN



Ingurugiroko astearen antolokataren barruan, hiru urteko haurrek ere parte hartu zuten.

Ura gaitzat hartuz ibilaldi bat antolatu genuen, gure ibaia ikusteko eta ibaiaren inguruan dagoena behatzeko (xomorroak, landareak...).

Urarekin jolasteko gogo haundia izan arren eguraldiak ez zigun lagundu eta hankak busti gabe etorri behar izan genuen etxera. Baina lasai! laister piszina irekiko dute eta bertan urarekin gozatzeko aukera izango dugu.

LAU URTEKOAK BIDEGORRIAN

Eguraldi onak hasi dira eta gu ere sugandilak bezala eguzkitara atera gara.

Non eta nola landu ingurunea eta norberen arteko erlazioa ingurunean bertan baino hobeki?

Gai bat landu ondoren (basoa, landareak, abereak...) eta liburuetan ikusi ondoren goazen benetakoak nolakoak direan ikuste-

ra, (zelaian dauden behiak, bide ondoko zuhaitzak...).

Motrizitatea lantzeko gelan zenbait ariketa egin ondoren ze poza kanpoan hankak, gorputz osoa mugitzea (korrika, saltoka ibiliz...) eta eguraldi onarekin alaiago.

Lagunarteko giro polit bat sortzea guretzat gai garrantzitsua da, gelan modu batera moldatzen dira baina kanpoan beste jende batekin harremanak izan dituzte, (beste gelakoei eskua eman, ikastolakoak ez direnak agurtu...).

Kalean ibiltzen ikasi behar dugu, bidea gurutatzeko bi aldeetara begiratu, espeliotik ibili, seinaleak ikusi..

Eta azkenik bizitzan fitxak eta liburuak baino gauza gehiago daude eta horiek gehienak gelatik kanpora daudela esan behar dugu.

1. MAILA

Errotako ibilaldia:

Hutolusean erota ikustera joan ginen. Uraren indarrarekin bi harri haiek artean etagoragora txikitzen zuten. Gero dena txikitzen zuten animaliei emateko zuten. Eta bestela taloa egiteko erabiltzen zuten. Olatz laia



3. MAILA

Hirugarren mailako hiru gelek, martxoaren 18tik martxoaren 22ra, "Ingurugiroaren astea" ospatu genuen. Horretarako egun batean Ergoiena joan ginen eta oso bidaia luzea egin genuen oinez. Han Arditturriko eta Penadegiko errekek nola elkartzen diren ikusi genuen. Ondoren Penadegiko erreka jarraituz Txarondoko errota ikusi genuen. Errreka jarraituz joan ginen eta kotxe bat ikusi genuen, bolkatutako kotxe bat, barruan ardo botilekin. Gero, lokatz pila batera sartu ginen, bota eta plaierak marroi-marroi jarri zitzaizkigun. Bide horretatik ezin genuen jarraitu eta zubi ondora joan ginen; han bazkaldu genuen. Batzuk uretara erori ziren eta han geundela, garbia zegoen ura, batbatean, marroitu egin zen. Askok jolastu ondoren, ikastolara bueltatu ginen.

Bigarren egunean Alzibarrera joan ginen. Uharteko errota ondoan dagoen zubitik Ergoiendik zetorren Oiartzun ibaia eta Karrikako erreka non elkartzen ziren ikusi genuen. Gero, Ergoien aldera abiatu ginen eta etxe batzuetan galderak egin genituen. Tomate landareak zituzten negutegi handi batzuk ikusi genituen. Bidegorri ondorik pasa ginen. Gero, batzuk zapabu-



ruak hartzen gelditu ziren.

Zulo handi bat zegoen, eta han saltoka ibili ginen. Erreka ondo ikusi ondoren, bazkaldu, asko jolastu eta, ikastolara bultatu ginen.

Hirugarren egunean, Ugaldetxora jaitsi ginen. Mamut ondorik pasatzen den ibaia oso zikina zegoela ikusi genuen. Gero, ibaia jarraituz Lartzabalera iritsi ginen. Erreka ikusi eta hamaiketako egin ondoren Gabierrotara heldu ginen. Han, ahateak eta korkoiak ikusi genituen nahiz eta ura zikin - zikina egon. Oiartzun ibaiak Errenderia aldera jarraitzen du baina guk hor bukatu genuen ibilaldia.

Hiru ibilaldi horietan oso ondo pasa genuen, eta konturatu ginen Oiartzun ibaia hasieratik bukaeraraino nola aldatzen den.

Hirugarren mailako ikasleek.





4. MAILA

Laugarren mailakoek "Ingurugiro astea" ren inguruan helburutzat Oartzungo ibaiaren azterketa izanik hiru irtenaldi burutu dituzte:

1. Ikastolatik, bidegorria jarraituz, Aiako Harria azpian dagoen Arditturri ingurura. Bertan ibaiaren jaiotza ikusi genuen.
2. Ikastolatik, Altzibarren barrena, Karrikara jo genuen, ibaia jarraituz.

Aipatzekoa, Karrikako Arrasku errota-
ra egindako ikustaldia. Gizakiaren
urtetako erabilpenaren adierazgarri
da.


Adierazi digutenez, berritu eta laster
martxan jartzekotan dira.

3. Ikastolatik Gabierrotaraino. Uraren
kutsadura nabarmenagoa ikusi
genuen.

Aste bikaina pasa genuen. Eguraldi
ederra egin zigun eta ingurugiroaren
zainketaren kezkan aurrerapauso
txiki bat egiteko baliagarri izan da.

Laugarren mailakoek.





6. MAILA

GOIZ BATEAN JOAN GINEN
DENAK ERREKARA
IRITSI TA SEGITUN
DENAK URETARA
BOTAK HANKETAN ETA
KANTATZEN "TRALARA"
HANTXE IBILI GINEN
HONA ETA HARA.

URETATIK ATERA
DEN DENA BUSTIA
HARRAPATUKO DUGU
BIHAR PULMONIA
BOKADILOA JAN TA
KENDU ZAIT GOSIA
GAURKO GOIZA IZAN DA
NAHIKO BEREZIA.

ANAK ESAN DIGU
SOMORROAK BILTZEKO
HORI EGIN ONDOREN
IBAIA NEURTZEKO
DENAK BUSTIAK GEUNDEN
GOGOA ALDATZEKO
GOSARIA HARTU DUGU
TRIPA BETETZEKO.

ALTZIBARKO ERREKA
DA AIPAGARRIA
ZIKINDUTA DAGO TA
EZ DA POZGARRIA
EZ ZAIGULA GUSTATZEN
HORI DA EGIA
ERREKA GARBITZERA
ETORRI ZAITIA.





7. MAILA

URAREN ERABILERA

Aste honetan zehar uraz egiten dugun erabiltzetaz ihardun dugu.

Alde batetik, gelako saio batzuetan ura zertan erabiltzen dugun : etxeetan (garbiketetan, janari prestaketan,...), industri alorrean, e. a. Hauetako saio batean etxeko uraren erreziboa aztertu dugu.

Bestetik, erabiltzen dugun uraren prozesua edo nondik norakoa ezagutu dugu: jatorria, Añarbeko urtegia, ur depuradora eta gure etxeetarako bidea. Honetarako bideo emanaldiez ere baliatu gara.

Bukatzeko, egun osoko ibilaldia burutu dugu, Añarbeko presaren ertzetik, Oiarzungo lurretan hasi eta Goizuetaraino iritsiz.

7. mailakoek

8. MAILA

1.- IBILALDIA:

Ibilaldia kantu alaiari egin genuen. Goizean 9_30etan autobusa hartu genuen eta Ergoindik barrena Aritxulegiko bidea hartuz, Portubururaino iritsi ginen. Ondoren, oinez, Penadegi zentral elektriko-ra joan ginen bere funtzionamendua ikusteko asmoz..

Ikusi beharrekoa ikusitakoan, atsedenaldira bat hartu genuen hamaiketa-

koa jateko. Ondoren, Boluntxora abiatu ginen. Hara iritsi eta irakasleek beste leku batera joan behar genuela esan ziguten. Eta, zein leku zen hau? Ba, Naparrobi. Bertan, ura garbitzeko erabiltzen den depuradorearen funtzionamendua ikusi genuen. Ondoren, bai!!! azkenean bazkaltzera joan ginen. Bapo bazkaldu eta pixka bat deskantsatu ondoren bidegorritik etxeratu ginen.

Hau izan zen guztia!

2.- ERAKUSKETA.

Bigarren hiruhilabetearen amaieran erakusketa bat egin genuen urari buruz ikastolan. Ikasle eta irakasleek hartu zuten parte antolaketan. Denetik izan zen: animaliak, argazkiak, maketak eta askoz gauza gehiago. Asko ikasi eta ikusi izan ahal genuen eta informazio ugari jaso genuen.

3.- "KONTAKATILU IRRATIAN":

7. eta 8. mailako ikasleek "Tarteka- Marteka" izeneko irratsaioa burutu dugu, INGURUGIROko astean egindako guztiaren berri emateko aukera izan genuen.



ALBISTEAK

Kaixo denori gaurko albisteak gure herrian egiten ari diren polikiroldegia da. Alkate jaunari galdera hauek egin dizkiot eta hauek dira erantzunak:

1. Noiz bukatuko duzue polikiroldegia?

Kiroldegia, aurten amaitzea espero dugu, 1997ko urtarrilaren hasieran irekitzeko.

2. Zein joko egongo dira?

Bertan kirol mota asko egiteko aukera izango duzue: igeriketa, futbol saskibaloia, eskubaloia, pilota, atletismoa, muskulazioa, gimnasia...

3. Non egingo duzue aparkalekua?

Aparkalekua kiroldegiaaren eskuin eta aurrealdean joango dira.

4. Zenbat kotxe sartuko dira?

Ehun kotxe inguru sartuko dira.

5. Polita izango al da polikiroldegia?

Gure ustez inguruko politena izango da.

6. Jatetxea egongo al da?

Momentuz edaritegia dago aurrikusita, baina gero ez dakigu jatetxerik izango duen ala ez.

7. Pistina haundia izango al da?

Bai, noski.

8. Zenbat neurtuko du?

25 m. x 16 m.

9. Zenbat ari zarete polikiroldegia egiten?

Ehun lagun inguru ari dira lanean guztira.

10. Polikiroldegia haundia izango al da?

Bai, esan genezake handia izango dela.

Hau dena jakin eta gero laister oiartzuar guztiak kirola egiten hasiko gara.

Mila esker alkate jauna nire galderak erantzuteagatik.

2. mailako ikasle bat



UNAI BIHURRIAREN ISTORIA

Bazen behin Unai izeneko mutil bat eta hiri handi batean bizi zen. Eta berak egiten zituen erosketak guztiak. Oso bihurria zen eta betaurrekoak zituen, ile marroia eta aurpegi kuadratuak zeukan telebista asko ikusten zuelako.

Egun batean lagunarekin piszinara joan zen eta han ito egin zen eta anbulantzia eraman zuten. Ninu!!! Ninu!!!!

Hurrengo egunean bizirik zegoen eta ordutik aurrera oso ondo bizi izan zen.

2. mailako ikasle bat.

HAURTZARO IKASTOLA

HAURTZARO IKASTOLA

da zoragarria
etortzen naizenean
sortzen zait irria,
zeren andereñoa
da maitagarria
gure maisua berriz
dugu pozgarria
beste andereñoa
da txalagarria.

Doinua: Motibo bat nigana.

5. Mailako ikasle talde bat.



HAURTZARO IKASTOLAKO BBB 3.EKOAK EUROPAN ZE HAR

Orain dela urte batzuk hasitako tradizio-ari jarraiki, aurten ere Haurtzaro Ikastolako BBB 3. mailako ikasleek kurtso bukaerako ibilaldia egin dute orain bi urteko promozioak jarraitutako bide bera eginez: Paris lehendabizi, Holanda ondoren eta Belgika azkenik.

Baina hau guztia antolatzeke eta dirua lortzeko lan ezberdinak egin behar izan dituzte urte osoan zehar, iganderoko base-ri-lana, zenbait larunbatetako azokarako produkzioa eta udaletxeak bidaltzen dituen zenbait gutunen banaketa, besteak beste.

Horrela, maiatzaren 4an gaueko 10etan abiatu ziren ikastolako aparkalekutik Parisa 26 ikasleak, bi irakaslerekin eta txoferrarekin, noski.

Parisa goizean iritsi ziren eta heldu bezain pronto, Notre Dame katedral fama-tua ikusi zuten. Handik metroa hartu eta hiria alde batetik bestera zeharkatu zuten bidean leku ezberdinak ikusiz: Place de l'Etoile, Sacré Coeur, Tour Eiffel, Trocadero,... Eguna amaitu zenerako guztiak neka-neka eginda zeuden eta segituan autobu-sez, Camping du Bois de Boulogne deritzon lekura abiatu ziren, non autobusa aparkatu eta bertan lo egin zuten.

Hurrengo goizean taldea bitan banatu zen: 7 gelakide eta irakasle bat Parisen zintzilik utzi zituzten eta zenbait monu-mentu ezagutzera joan ziren: Louvrè, La Defense,... Beste taldea, berriz, Asterix atrakzio parkera joan zen atrakzioetako sentsazio kilikagarriak dastatzera. Bi tal-deek oso ongi pasa zuten aukeratutako

lekuan eta biak batzean, euren esperien-tziak kontatu zizkioten elkarri. Guztiak opari ederrez puztuta etxekoentzat eta baita norberarentzat ere bueltatu ziren autobusera, holandar Den Haag hiri fama-tura abiatzeko gogoz.

Autobus-literan lo egin zuten eta hurren-go eguna Den Haag bisitatzeko eman zuten: Vermeer, Madurodam museoa (bertan Holandako monumentu eta eraikuntza eza-gun eta xarmangarrienak miniaturan ikusi ahal izan zituzten),... Eta arratsalde aldera, Elst herriko albergera joan ziren Utrecht hiria ezagutzeko plana bertan behera utziz haien nekea zela eta.

Hurrengo goizean, albergean bertan gosaldia (gosaria duen pentsioan egon ziren) eta Holanda iparraldean kokatutako Enkhuizen herrira abiatu ziren. Bertan, herria bera bisitatu eta ondoren, itsasoz, Zuiderzee izeneko museoa ikusi zuten. Honek 1883. urtean girotutako holandar arrantzaletako herri bat du ikusgai: orduko zereginak, ohiturak, jatzera, bizimodua, etxeak, tailerrak, komunikazio bideak,... Bertako emakume batekin adiskidetu zi-tzaizkigun gure ikasle ausartak eta jakin izan zuten, etxe haiek guztiak Holandan zehar aurkitzen ziren eta denak toki hartan bildu zituzten museo hura eratzeke asmoz; jadanik ez dago Holanda guztian honelako herririk, zoritxarrez. Ikasle guztiak txunditu-ta gelditu ziren hemen, bai pozez eta baita harriduraz ere. Hala ere, oso triste utzi zuten museoa ez baitzuten astirik izan guz-tia ikusteko.

HATZAK BETE LAN

Honela, ba, Vollandam herrira abiatu ziren gero eta arratsaldea bertan igaro ondoren, Elsteko albergera itzuli ziren.


Hurrengo goizean, eta ohikoa gosaldutik ondoren (moldeko ogia, mermelada, mantekila, eztia, enbutidoak, kafea, tea, esnea,...), Amsterdam ezagutzera abiatu ziren irriki osoz. Bertan txundituta gelditu ziren: zenbat kanal, zenbat jende,... baina batez ere, ZENBAT BIZIKLETA!!! Erne ibiltzen ez baziren baten batek harrapa zitza-keela aitortu zuten aho batez bueltan etorri zirenean.

Han bizikletek bidegorritxo antzeko bat daukate espaloietan zehar eta gainera, ez dute frenorik; hori gauza xelebrea!!!

Maiatzaren 9 honetan Amsterdameko Rastroa, dendak, Kale Gorri famatua,... bisitatu zituzten nagusiki. Hala eta guztiz ere, gauza asko zintzilik gelditu zitzaizkiela iruditu zitzaenez, hurrengo eguneko arratsaldean ere bueltatu egingo zirela erabaki zuten.



Maiatzaren 10aren goizean Alkmaar herrira joan ziren eta bertan hain famatua den gazten azoka ikusi ahal izan zuten, zeina oso erakargarria den: zenbait gizonak, lau taldetan banaturik eta bakoitzak, besteengandik bereizteko kolore ezberdinetako txapelak jantzita (horia, berdea, urdina eta gorria; bakoitzak enpresa baten ordezkaritza betetzen du), gaztak, txalupa itxurako egurrezko kaxa handi batzuen laguntzaz garraiatuz, kamioietan sartzen dituzte pisatu ondoren eta gero herrialdeko leku ezberdinetara eramaten dira saltzeko.





Gazta batzuk erosi ondoren (nola ez), gure taldea Amsterdamera abiatu zen berriro. Bertan 3 taldetan banatu ziren: batzuk, 7 bat, Van Gogh pinakoteka ikustera joan ziren; beste 5 Anna Frank neskatala judutarren etxe-museoa bisitatzeraz; eta gaitzontzekoak Rastroa hobeto aztertzeraz joan ziren. Ondoren, guztiak Dam plaza famatuan elkartu eta inguruko dendak ikustera eta azken holandar oroigarriak erostera joan ziren. Horrela, eta oso penatuta baina pozik, autobusean montatu eta azken aldiz egitera zihoazen Elsterako bideari ekin zioten.

Hurrengo egunean beti bezain goiz jeiki ziren eta ohiko gosaria gureganatu ondoren, Belgikan kokatuta dagoen Brugge herrira joan ziren. Bertan, herriaz gain, mai-teminduen lakua bisitatu zuten, non zenbait argazki atera zizkioten elkarri, ezin baitzen hain liluragarria eta ederra zen ikuspegia argazkirik atera gabe laga.

Egun osoa han igaro zuten, herrian, eta opari ugari erosi zituzten; ohikoak eta hain famatuak eta gozoak diren txokolate eta

gailletetan joan zitzairen guztiei eramandako diruaren kantitate garrantzitsu bat.

Baina haiei bost axola, hura baitzen azken eguna. Bati baino gehiagori negar egiteko gogoa etorri zitzaion Brugge herrian autobusean sartu zirenean. Honela, itzule-ra triste baina zorionekoari ekin zioten. Gaua autobus-literan eman zuten arren, oso ondo egin zuten lo, oso aste luze eta neketsua (baina errepika dadila gustatuko litzaiekena, dudarik gabe) izan baitzen.

Maiatzaren 12an goizeko 10'30etan iritsi ziren aste bete eta zenbait ordu atzera abiatu ziren leku berberera: ikastolako aparkalekura, alegia.

Oraindik ere txundituta zeuden nolako aurrerapenak, jendetza, eraikuntzak, azkartasuna, (BATEZ ERE),... ikusi zituzten iparraldean, maparen goialde horretan; Parisen hedadura eta jende arrazak, Holandako bizikleta, tulipan eta errotak eta Belgikako mugimendu aztoratuaren erdiko lasaitasuna, ipuinetako gaztelu miragarriez inguratuta.

7 hilabetetako lanak astebete zoragarria pasatzeko balio izan zien. Beharbada batek baino gehiagok zera pentsatuko du: "Hainbeste denbora astebete soilik igarotzeko?" Eta arrazoina daukate, baina ez dakite zeinen aste zoragarri eta ahaztezina igaro zuten gure neska-mutilek. Euren arteko harremanak sendotzeko eta elkar gehiago ezagutzeko zoragarria izan zen.

A M A I E R A

MATEMATIKA LOJIKA


1.- Nire galtzetako poltsikoan 30 pezeta ditut bi txanponetan. Txanpon bat ez da bost pezetakoa. Nola liteke hori?

2.- Luisen amak bost seme-alaba ditu. Lehenengoa Ta deitzen da, bigarrena Te, hirugarrena Ti, laugarrena To eta bostgarrena ...

Nola deitzen da?

3.- Hegazkinean noa Parisera, 8.000 metrotara, abiadura 350 km orduko eta haizearen indarra 180 koa da. Bat-batean ekaitza dator eta 3.650 metro jeisten ditut eta abiadura erdira moteltzen da.


Ze izen du hegazkineko gidariak?




PASTIMES IN ENGLISH

A - CAN YOU DO THIS CROSSWORD?

1. I in Oiartzun.
2. What's the like today? It's windy.
3. I'm looking at you and you're looking at
4. I live number 5 Lime Avenue.
5. I'm not a girl, I'm a
6. pencil is this? It's Eneko's pencil.
7. Do you fish? Yes, I do.
8. How are you? I'm nine.
9. Yesterday was Monday and today is
10. are you from? I'm from New Zealand.





B - COMPLETE THE FOLLOWING LISTS:

1. - Brother, father, grandmother,
2. - Jumper, t-shirt, track-suit,
3. - One, two, three,
4. - Two, four, six,
5. - Brown, yellow, black,
6. - Elephant, dog, giraffe,
7. - Ice-cream, sandwich, cheese,

Aurkitu Oiartzungo bost mendiren izenak eta borobildu.

H	I	R	U	M	U	G	A	R	R	I	E	T	A
B	I	L	A	R	R	I	Z	U	M	N	Ñ	A	M
A	A	R	N	S	A	N	U	A	E	S	Z	B	L
B	N	A	U	R	I	D	M	E	A	E	A	Z	K
Z	A	B	Z	M	U	N	A	N	I	E	R	E	J
D	R	E	F	N	U	A	B	Z	O	N	A	F	I
E	E	D	Z	B	A	G	B	A	M	A	E	M	H
F	K	J	I	H	E	F	A	Z	Ñ	R	R	N	E
J	P	O	N	Ñ	M	L	A	R	R	R	Ñ	N	F
H	Y	U	T	S	R	K	D	Z	R	I	I	O	E
I	Z	B	A	Z	X	W	B	A	E	I	M	P	D
O	J	F	E	D	A	G	N	E	R	R	E	R	Z
P	A	Z	F	P	N	L	U	S	I	B	D	T	B
R	B	D	E	O	M	Y	T	R	A	Z	E	B	A



Aldizkariko sekzioren batean parte hartu nahi baduzu, hona hemen jarraitu beharreko prozedura:

* Zure lanak izenpetua izan behar du; Izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi behar dituzu.

* Ikastolako helbidera bidali behar dira lanak, eta sobrean aldizkarirako dela eta zein sekziarako den adieraziko da. Edo, ikastolako buzoian utziko da.

Hautzaro Ikastola

TXINPART aldizkaria,sekzioa.

Elorrondo Z/G, 20180 Oiartzun.

* Lanak jasotzeko epea, hiruhilabete bakoitzaren bukaera baino hilabete bat lehenago izango da.



HAURTZARO IKASTOLA



fundazioa
fundación

